

Berriak

2017ko albisteen kronika

Otsailaren 7an, administrazioan toponimia zuzen erabiltzeko ikastaroa antolatu zen Burlatan

Jada bost aldiz egin den jardun hau Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarearen, Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskaltzaindiaren elkarlanaren fruitua da. Patxi Salaberri, Idoia Zabaltza, Mikel Gorrotxategi, Felix Mugurutza eta Patxi Galék parte hartu zuten ikastaroan.

Otsailaren 24an, euskararen eremuko bost ganberetako legegileek eta Euskaltzaindiak "Oinarrizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa" aurkeztu zuten

Euskaltzaindiak eta Eusko Legebiltzarrak duten elkarlanari esker egin da lana, eta, horretarako, bat egin dute Eusko Legebiltzarrak, Nafarroako Parlamentuak eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek. Aurkezpen ekitaldian parte hartu zuten, hurrenkera honetan, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Gotzon Lobera *Hiztegi Juridiko-Parlamentarioaren* lantaldeko koordinatzaileak, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak, Pedro Elosegi Arabako Batzar Nagusietako lehendakariak, Eider Mendoza Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariak, Ainhoa Aznárez Nafarroako Parlamentuko lehendakariak eta Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko lehendakariak. Hiztegiak 1.754 hitz eta esamolderen lan-corpusa landu du, eta hortik 1.438 sarrera jaso ditu euskaratik gaztelaniara, eta 1.409 gaztelaniatik euskarara.

Koldo Larrañaga historialariak bere artxibo pertsonala eman zion Euskaltzaindiari

Unibertsitateko irakaslanarekin lotutako askotariko liburuz eta materialez osatua dago dohaintza; horrez gain, berak argitaratu edo bildutako artikulua ere utzi dizkio Akademiari, hori dena aztertu, katalogatu eta behin betiko zerrenda egin dezan.

Koldo Larrañaga Elorza Azkoitian (Gipuzkoa) jaio zen, 1937ko azaroaren 18an. Filologia eta Teologia ikasketak egin zituen Deustun (Bilbo); Elizaren Historian eta Filosofia eta Letretan ere lizentziaduna da; ondoren, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean atera zuen doktoretza. Katedraduna da 1989tik, eta Deustun, Bergaran, Zarautzen, Arrasaten eta Araban aritu da, maisu lanetan.

Euskal Herriaren historia sakon ezagutzen du Larrañagak, eta eskolako material ugari ondu du gai horren inguruan. Ikerlaria ere bada azkoitiarra, eta, besteak beste, Euskaltzaindiak agindutako *Euskararen liburu zuria* lanean parte hartu zuen. Liburu ugari idatzi du, gehienak historiari lotutakoak. Tartean, *La Real Sociedad Bascongada y la Ilustración*; *Euskal Herria Aintzinatean. Materiale eta agiriak* (Kriseilu); *Erromatarren kolonizakuntza Euskal Herrian* (Gero-Mensajero); edo *Euskal Herria Aintzinate Berantiarrean eta Lehen Ertaroan. Materiale eta agiriak*.

1971 eta 1973 bitartean Jakin argitaletxearen Historia sailaren arduraduna izan zen, eta, horrez gain, mintegi eta ikastaro askotan parte hartu izan du.

Helsinki Unibertsitateko Contextualizing Historical Lexicology kongresuan izan zen Euskaltzaindia

Helsinki Unibertsitateak Contextualizing Historical Lexicology kongresua antolatu zuen maiatzean; etimologian eta hiztegigintzan ari diren ikertzaileen topaleku izan zen hiru egunez (15etik 17ra) Finlandiako hiriburua.

Bertan egon zen Euskaltzaindia, eta 'Basque etymological studies: loanwords, roots and a new etymological dictionary' izeneko hitzaldia aurkeztu zuten Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa proiektuko teknikariak, Julen Manterolak, eta zuzendariak, Joseba Lakarra euskaltzainak.

Kongresu hau parada bikaina izan zen hizkuntza indoeuoparrez bestelako tradizioetan jorratutako metodoak eta izandako arazoak hobeki ezagutzeko, eta, bide batez, fino-ugrierazko ikasketan erreferente diren Janne Saarikivi, Petri Kallio eta haien inguruko ikasle eta ikertzaile espezialistak ezagutzeko, etorkizun oparoko elkarlanaren oinarriak ezarri.

Itzulpen Onenaren Sari Nazionalaren oinarri-arauak aldatu zituen Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministerioak

Honela, gaztelaniatik Estatuko beste hizkuntza ofizialetara, hots, katalanera, galegora edo euskarara eginiko itzulpenak ere sarituko dira aurrerantzean; eta alde-rantziz, berdin.

Luis Baraiazarra ohorezko euskaltzainari iazko azaroan gertatutakoa gogoan (saria eman ostean, egun berean kendu egin zioten), Sari Nazionalaren oinarri-arauak aztertu eta aldatzeko proposamena egin zion Andres Urrutia euskaltzainburuak Iñigo Méndez de Vigo Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroari, 2016ko azaroaren 16an bidalitako gutun baten bitartez.

Orduan, Euskaltzaindiak gogor kritikatu zuen gertatutakoa, eta ministroari eska-tu zion oinarri-arauak azter eta alda zitzan, “espainieratik Estatuko beste hizkuntza ofizialetara, hots, katalanera, galegora edo euskarara eginiko itzulpenak ere saritu daitezzen; eta alderantziz, berdin”.

Ekainaren 8an Klasikoen Irakurketa Jarraituan egon zen Euskaltzaindia

Bilbo Zaharra euskaltegiak urtero-urtero antolatzen duen egitasmoan parte hartu zuten Andres Urrutia euskaltzainburuak, Xabier Kintana eta Adolfo Arejita euskaltzainek, eta Erramun Osa Akademiako idazkariordeak. Goizean goiz gerturatu ziren Euskaltzaindiko kideak Bilboko Arriaga Antzokira, Itxaro Bordaren %100 *Basque* obraren lehen atalak irakurtzera.

Ekainaren 12an Euskaltzaindiak Toponimia jardunaldia antolatu zuen Baionan

Euskaltzaindiak Toponimia mintegia antolatu zuen Baionan. Beste gai askoren artean, honako hauek jorratu ziren: Hazparne Lurraldeko proiektuaren aurkezpena eta Donostiriko adibidea; Euskal Elkargoaren beharrak toponimia arloan; IGN erakundeak eremaiten dituen lanak; Euskaltzaindiaren lana toponimia arloan.

“Euskarak tokia hartu ahal izateko hizkuntza politikaz” jardunaldia

Hizkuntza politikaren eremuan Ipar eta Hego Euskal Herriko arduradun nagusiak bildu ziren ekainaren 14an, lehenengoz, Sabino Arana Fundazioak (SAF) eta Euskaltzaindiak elkarlanean antolatu zuten jardunaldian.

Egitasmoa SAF-k Bilbon duen egoitzan burutu zen helburu bikoitz batekin: bate-tik, arlo honetan herri erakundeek dituzten asmoak eta ildoak ezagutzea; bestetik, erakunde horiek dituzten lankidetzak aukerak aztertzea.

Bertan izan ziren, besteak beste, Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, Miren Dobaran sailburuordea, Mikel Arregi Nafarroako Gobernuako Euskarabidea zuzendari nagusia edo Mathieu Bergé Euskararen Erakunde Publikoko lehendakaria.

Euskara gaitasuna lantzeko tailerra eman zuen Miriam Urkiak UEU

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) urtero antolatzen dituen ikastaroen barruan, euskara gaitasuna lantzeko tailerra eskaini zuen Miriam Urkia euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiaren Hiztegiko lantaldeko buruak, Christian 'Antton' Harignordoguy AEK-ko irakaslearekin batera. Tailer hau Baionan egin zen, uztailaren 6an, Euskararen Erakunde Publikoaren egoitzan.

Honako hauek izan ziren ikastaroaren helburuak: Frantsesak eragindako zenbait kalko arruntez ohartaraztea; hiztunek izaten dituzten hainbat zalantza eta arazori erantzuteko baliabideak ematea; erreferentziazko dokumentuetan nola bilatu erakustea; eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia* ezagutzea eta erabiltzen ikastea.

Euskaltzaindiak "Kimikako Oinarrizko Lexikoa" argitaratu zuen

Kimikako Oinarrizko Lexikoaren dokumentuak bi atal ditu: -Euskera-atala, 1.171 sarrera dituena. Lantaldeak beharrezko iritzi dionean, informazio osagarriak gehitu dira, hala nola kategoria gramatikala, erabilera-oharrak, ohar semantikoak eta adibideak. Sarrera guztietan, ingelesezko (en), gaztelaniazko (es) eta frantsesezko (fr) ordainak argitaratu dira. -Erdarak-euskara atala, hiru azpiatalez osatua (en-eu, es-eu, fr-eu).

Arlo teknikoetako erabilera berariaz aztertzeko eta oinarritzko lexikoak osatzeko, Euskaltzaindiak Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko egitasmoa abiarazi zuen (ZTHB). Egitasmo horren lehen emaitzak 2016an argitaratutako Matematikako, Fisikako eta Astronomiako oinarritzko lexiko teknikoak izan dira. *Kimikako Oinarritzko Lexikoa* ere ildo beretik eta metodologia bera erabiliz egin da.

Euskaltzaindiaren B titulua aitortu zuen Jaurlaritzak

Dekretu baten bitartez, Akademiaren B tituluarekin batera, Herri Arduraritzaren Euskal Erakundearen (HAEE) eta Osakidetzaren 4. hizkuntza eskakizunak, eta HABEren 4. mailako egiaztagiria C2rekin baliokidetu ziren.

Eusko Jaurlaritzak onartu zuen dekretuaren helburua da, hain zuzen ere, euskararen jakintza bermatzen duten titulu eta egiaztagiri guztiak Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Marko Bateratukoekin baliokidetzea. Ondorioz, B1, B2, C1 eta C2 mailekin parekatuko dira guztiak. Dekretu honek bilatzen zuen HABEk (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) ematen dituen tituluak eta Euskaltzaindiaren B titulua sartzea, euskararen ezagutza egiaztagiri eta titulu ia guztiak baliokidetuta baitzeuden aurretik ere. Horiekin batera, Herri Arduraritzaren Euskal Erakundearen (HAEE) eta Osakidetzaren 4. hizkuntza eskakizunak ere baliokidetu dira.

2017-2021 aldirako organigrama eguneratu zuen Euskaltzaindiak

Besteak beste, Arabako eta Gipuzkoako lurralde-ordezkarri berriak izendatu ziren. Roberto Gonzalez de Viñaspre izendatu zen Euskaltzaindiaren Arabako ordezkarria, eta Miriam Urkia, Gipuzkoakoa. Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko ordezkarriak orain arteko berak izango dira, Andres Iñigo eta Xarles Videgain, hurrenez hurren.

Barne jardunaldiak amaitu ostean, eta lau urtetik behin egiten den moduan, finkatuta geratu zen Akademiaren 2017-2021 aldirako organigrama akademiko berria. Ezarri ziren, halaber, aldi horretarako ataletako helburuak eta jarraibideak, Euskaltzaindia 2021 Plan Estrategikoan jaso zirenak, alegia.

Denbora-tarte honek bete-betea hartzen du mendeurrena (2018-2019), eta Akademiak egitura berri eta sendotu nahi izan du, data esanguratsu horri begira. Honela, batzorde suntsikor bat eratu du Akademiak eta mendeurrenean egingo diren ekitaldiak eta egitasmoak sustatzea eta koordinatzea izango da batzorde horren helburua.

Beste berrikuntza bat ere badakar organigramak, Akademiak erabaki baitu bere garaian zuen Lege batzordea berriro eratzea. Aldaketa honen xede nagusia da Euskaltzaindia XXI. mendearen eskakizunetara eta euskal hiztunen beharretara egokitzea, bere funtzionamendua hobetzea eta euskararen lurralde guztietan gizarteari egiten dion ekarpena indartu eta areagotzea.

Patxi Salaberri euskaltzaina ICOS nazioarteko onomastika kongresuan izan zen irailean

Patxi Salaberri euskaltzaina Debrecen hirian (Hungarian) egin zen mundu mailako onomastika kongresuan (ICOS-en) izan da. Bertan, mota guztietako eta mundu guztiko izenak aztertzen dira.

Salaberrik Luzaide (Nafarroa) hartu zuen aztergaitzat, muga herria den aldetik, eta zera adierazi zuen: "Hasteko, historia pixka bat egin dut, muga egon denez, behin baino gehiagotan erre eta arpilatu baitute Luzaide; eta gero Garaziko eta Baigorri aldeko beste herriein komunean zer duen zehazten saiatu naiz, eta, era berean, mugaz hegoaldekoekin (Auritz, Aurizperri, Mezkiritz, Aezkoa ibarra) dituen desberdintasunak azaldu ditut: legez espainola da, baina onomastikaren aldetik, bertako euskararekin gertatzen den bezala, garaztarra da".

“Euskara ibiltaria” erakusketa Baionan izan zen

Irailearen 11n, Euskaltzaindiak *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a (EHHA) egitasmoa oinarritzat duen erakusketa inauguratu zuen Baionako Euskal Museon. Erakusketa urriaren 1a arte egon zen irekia.

Erakusketa horretan arreta berezia jarri zen Ipar Euskal Herriko grabazioetan jasotako informazioan (formak, berezitasunak, berriemaileak, audioak...).

Orain arte, “Euskara ibiltaria”ren hiru edizio egin ditu Akademiak: Beasainen, Portugaleten eta Bilbon, hain zuzen.

Urriari *Herri Hizkeren Atlasari* buruzko mintegia antolatu zuen Euskaltzaindiak

Ondareari buruzko Europako Jardunaldien barruan antolatu ziren ekitaldi biak, euskaraz eta Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan egin ziren.

Mintegi honek bi helburu bete nahi zituen: batetik, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a (EHHA) azaltzea, eta, bestetik, Bizkaiko kasurako lehen hurbilketa egitea.

Nafarroako Parlamentuak hartu zuen “Euskara ibiltaria” erakusketa

Urriaren 6tik 31ra bitartean, Nafarroako Parlamentuaren egoitzak hartu zuen *Euskara ibiltaria* erakusketa. Aurkezpen ekitaldian, Adolfo Arejita euskaltzain eta EHHAren zuzendari nagusiak adierazi zuen erakusketa hau “gogoz baina zorroztasunez eginiko hautaketa bat” dela. Hain zuzen, “mapa bakoitzak fenomeno linguistiko bereziren bat” erakusten duelako: sinonimoen eta aldaera nagusien banaketan kontzeptu batetik bestera diren berezitasunak ageri dituzte. “Mapa kopuru mugatu honen bidez –azpimarratu zuen Arejitak-, animalia, landare, denbora eta ohiko kontzeptu orokorrak euskal hizkeretan barrena nola adierazten diren erakutsi nahi izan da”. Honela, “hizkuntza-atlasean oinarrituta dagoen “*Euskara Ibiltaria*” erakusketak euskararen batasun eta aniztasunaren erakusgarri izan nahi du. Euskal hitzen ezaugarriak, hiztunen arteko harremanaren eta kasu batzuetan isolamenduaren bidez gauzatu dira belaunez belau. Hain zuzen, horrek erakusten du izenen arteko batasuna edo aniztasuna”, gaineratu zuen EHHA egitasmoaren arduradunak.

Ainhoa Aznárez Nafarroako Parlamentuko lehendakariak ere hitz gozoak erabili zituen bere sarrera-hitzaldian: “Erakusketa interesgarri honek gure historiaren zati bat eskaintzen die gure hiritarrei, altxor izugarria, estreinakoz aurkezten dena gure Foru Erkidegoan, eta ohore bat da nafar guztien etxea den leku honetan egitasmo hau hartzea”.

Azaroan “Pirinioetako Hizkuntzak” erakusketa antolatu zuten Euskaltzaindiak eta Euskal Museoak

Katalanaren, okzitanieraren, aragoieraren eta euskararen ezaugarriak eta bilakera erakusten dituen erakusketa zabala antolatu zuten Euskaltzaindiak Baionako Euskal Museoan.

Erakusketa azaroaren 20tik abenduaren 17a arte izan zen ikusgai. Egitasmo hau Euskaltzaindiak Baionako Herriko Etxearekin eta Euskal Museoarekin 2017rako adostutako ekimenen barnean kokatu zen.

Andres Urrutiak gaskoiz agurtu zuen Guy Mondorge akademikoa -"adisatz", eta esan zuen hizkuntza aberastasun handia dagoela Pirinioetako bi aldeetan, erakusketa honek aditzera ematen duen legez.

Patxi Uribarren eta Joan Mari Torrealdai euskaltzain emeritu

Azaroaren 24an, Gipuzkoako Foru Aldundian egindako Osoko bilkuran, Joan Mari Torrealdai eta Patxi Uribarren euskaltzain osoak euskaltzain emeritu izaerara igaro ziren. Gogoratu behar da emeritu izaerara igarotzeko 75 urte beteak izan behar dituztela euskaltzain osoek.

Euskaltzaindiaren Arautegiak eta Barne erregelek diotena jarraituz, bi euskaltzain oso emeritu izatera igarotzearen ondorioz, bi hutsarte aldarrikatu dira. Bi hutsarteok betetzeko proposamenak ondorengo bi Osoko bilkuretan aurkez ditzakete euskaltzainek, eta hirugarren batzar batean egingo da bozketa, non izendatuko diren euskaltzain oso berriak, euskaltzain osoen bozen nagusitasuna erdietsi ondoren. Euskaltzain osoa izateko proposamena hiru euskaltzain osok izenpetu behar dute; eta, proposamenaz batera, zerrenda bat egin behar da, hautagai bakoitzak dituen merezimenduak xeheki aipatuz.

Euskaltzaindiak Leizarragaren "Testamentu Berria" erakutsi zuen Durangoko Kurutzesantu Museoa

Abenduaren 9an, 1571ko edizioaren ale bat utzi zien Euskaltzaindiak Gerediaga Elkarteari eta Durangoko Eliza Ebanjelistari. Joanes Leizarraga apaizaren *Jesus Krist gure Jaunaren Testamentu Berria* euskal libururik ospetsuena eta estimatuenetakoa da. Nafarroa oraindik independente baten erregina legitimoak (Joana Albretrek)

agindu eta sustatu zuen itzulpen hau, eta bertan agertzen da idatzita eta editatuta, lehenengoz, *Euskal Herria* izena.

Andres Urrutia euskaltzainaren ustez: "Liburu hau zoragarria da, sekulako altxorra. Esaterako, euskara estandar antzeko bat egiteko ezagutzen dugun lehen ahalegina da, Albret erregina horretan tematu zelako".

Itzulpen honen hamabi ale inguru baino ez dira ezagutzen munduan, eta Euskaltzaindiak horietako hiru ditu (bi gordailuan).